

ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN

VIII. TOPAKETA

Jose Luis Insausti Urigoitia

Errenteria-Oreretarroi gure herriaren kultura zaintzea eta lantzea gustatzen zaigu, eta horrek bereizten gaitu zalantzarik gabe. Hori horrela dela ziurtasun osoz diot gainera, herri gutxiak baitute gureak duen kultur eskaintza zabala. Izan ere, horrela izan dadin ahalegin berezia egiten dute Udalak eta era guztietako elkarteek. Herriko elkarteek lan itzela egiten dute kulturaren biziraupena ziurtatzeko.

Buruhandien eta Erraldioen konpartsak Gipuzkoan zuten lekua berreskuratzen ari dira. Kultur talde asko ari dira eginahal honetan buru-belarri. Ikusi besterik ez dago Gipuzkoako zenbat herritan antolatzen duten jaietako folklore-jarduera aberats hori. Izan ere, garai batean herrialde osoan ospatzen zen.

Oarso Aldizkarian jasota geratzea nahiko nuke joan den urtean Landare Elkarteak uztailaren 24rako antolatu zuen Erraldioen eta Buruhandien VIII.Topaketaren aberastasuna.

Joan den urteko ekitaldiak, gainera, hiru berrikuntza izan zituen. Lehena, eguerdian Maria Lezoko zona berrian eta Laneran egin genuen desfile txikia; txaranga ere lagun izan genuen, jende asko hurbildu zen eta bertaratutako guztien gustukoa izan zen ekitaldia. Antolatzailleak, beraz, pozik oso.

Bigarren berrikuntza Koldo Mitxelena ikastetxearen parte-hartzea izan zen; bertako Erraldoi txikiek hartu zuten parte. Hain zuzen ere, gure Maialen eta Xanti erraldioen erreproduzioak kaleratu zituzten.

Hirugarren berrikuntza Gaztaño, Pontika eta Alaberga auzoen eta

Telleri Alde ikastetxearen parte-hartzea izan zen. Izan ere, haien buruhandiek desfilean hartu zuten parte.

Elkarte eta ikastetxeei laguntza eskatu genien, eta, beraz, desfilean parte hartzera gonbidatu genituen. Horrek guztiak oso harrera ona izan du guztion aldetik. Gainera, horrelako ekitaldiek partaideen arteko harremana sendotu eta aberastu egiten dute batetik, eta, bestetik, gure herriaren kultura zabaltzen eta hedatzen laguntzen dute.

2005eko topaketan parte hartu zuten konpartsak honako hauek izan ziren: Donapaleukoa, Lakuntzakoa, Urnietakoa, Logroñokoa eta Orereta-Errenteriakoa. Guztira, 16 erraldoi eta 24 buruhandi, bi erraldoi txiki eta bertako 20 buruhandiak.

Amaitzeko, nabarmendu nahi nuke irudi horiek guztiek aho zabalik utzi zituztela ikusle guztiak, hain dira dotoreak. Eskainitako dantza alaiekin Orereta-Errenteriako bizilagunak liluratu zituzten eta konpartsek ikusleen txalozaparradak jaso zituzten.

Eskerrik asko, beraz, partaide guztioi eta Orereta-Errenteria herriari. ■





Urtebetan eta Irizabandien VIII. Kontzentrazio Erakustaria

28. urtebetan, 28 irizabandik 8 herri irizabandietatik geroztik,
Milaioak Irizabanda Erakustaria.

VIII. Kontzentrazioa da Oligotas eta Kabandak en Eskola

Herriak eta 8 irizabandak en jatorri en herri irizabandien del eta gero.

Basogabea, Labantza, Orolata, Legorria y Erretoria-Oiztea

